JUNTAS GENERALES DE ALAVA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

SUPLEMENTO
al Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava

GEHIGARRIA
Araba Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala

2013ko uztailaren 5a, ostirala — ZENBAKIA 76 NÚMERO — Viernes, 5 de julio de 2013

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**3478**

**21/2013 Foru Araua, ekainaren 27koa, Auzo Harremanak sustatzeko ekimenetarako eta Arabako Toki Erakundeetan Obra Txikiak gauzatzeko laguntza programak arautzen dituena.**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2013ko ekainaren 27an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

21/2013 Foru Araua, ekainaren 27koa, Auzo Harremanak sustatzeko ekimenetarako eta Arabako Toki Erakundeetan Obra Txikiak gauzatzeko laguntza programak arautzen dituena.

ZIOEN ADIERAZPENA

Obren eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen zuen apirilaren 24ko 14/1997 Foru Arauak arautu zituen, indarrean zela, Arabako Foru Aldundiak toki erakundeei eman beharreko laguntzak. Laguntza horiek "Auzo harremanak sustatzeko ekimenak" izeneko laguntza programaren bidez burutuko ziren, Veredas edo Auzolan izenarekin ezagunagoa den programaren bidez, alegia; bere ezaugarri nagusia diruz lagundutako jarduerak burutzeko modua delako du izen hori. Arabar landa inguruan hazten ari zen errealitate baten aurrean Aldundiak zerbait egiteko zuen interesa zuelako egin da Arau hau; errealitate horren alderdirik bistakoena landa inguruko biztanleriaren jokaera zen, baita hiriko biztanleria jakin baten eboluzioa ere, landa ingurura joan baitira bizitzera.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**3478**

**Norma Foral 21/2013, de 27 de junio de 2013, reguladora de los programas de ayudas a las Iniciativas para el Fomento de las Relaciones Vecinales y a la Ejecución de Obras Menores en las Entidades Locales de Álava.**

Las Juntas Generales de Álava en su sesión plenaria celebrada el día 27 de junio de 2013, han aprobado la siguiente norma foral:

Norma Foral 21/2013, de 27 de junio de 2013, reguladora de los programas de ayudas a las Iniciativas para el Fomento de las Relaciones Vecinales y a la Ejecución de Obras Menores en las Entidades Locales de Álava.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Norma Foral 14/1997, de 24 de abril, reguladora del Plan Foral de Obras y Servicios, reguló, durante su vigencia, y a través de su Título IV, las ayudas a conceder por la Diputación Foral de Alava a las Entidades Locales para la ejecución de obras a través del programa de ayudas denominado “Iniciativas para el Fomento de las Relaciones Vecinales”, comúnmente conocido como de Veredas o Auzolan, dado que su característica principal radica en la forma de ejecución de las actuaciones subvencionadas. Responde esta regulación al interés de la Diputación por reaccionar ante una realidad que venía haciéndose patente en el área rural alavesa, y que mostraba su cara más visible en el cambio de los patrones de comportamiento de la población no urbana, así como en una sostenida evolución de determinada población urbana a su incorporación al medio rural como forma de vida.

Sortutako eta araututako laguntza programaren orduko helburu nagusiak herria egiteko ohiko formak berreskuratzea eta populatzaileei aukeratutako bizilekuko tokiko biztanleekin lankidetzan aritzeko tresna baliagarri bat eskaintzea ziren, elkarbizitzaren mesederako bitartekoak artikulatuaz.

Bestalde, tresna honi esker, neurri txikiko eta zailtasun tekniko txikiko jarduerak finantzatu ahal izan ditu bai toki erakundearentzako bai Arabako Foru Aldundiarentzako oso kostu lehiakorretan; jarduera horiek toki erakundeen ondasun batzuen zaintza eta erabilera egoera mantentzeko izan dira, beste batzuk, aldiz, elkarbizitzarako espazioak hobetzeko erabili dira, inbertsio txikien bidez.

1997az geroztik laguntza programa honen ezarpenaren emaitzei buruz egindako azterketa oso positiboa da, bai inbertsioei dagokienez, bai gizarte kohesioari dagokionez; toki erakunde gehienak sartu dira programan, bereziki kontzejuak eta udal txikiak. Hori dela eta, kasu askotan ohiko formula hau mantendu egin da, eta beste kasu batzuetan, aldiz, zenbait hamarkadaz baztertuta egon ondoren formula berreskuratu da.

"Obra Txikiak Gauzatzeko" programa 2008an agertu zen Aldundiak toki erakundeekin zuen lankidetzarako foru panoraman eta eskari bikoitz bati erantzuteko sortu zen:

Herrietako eguneroko kudeaketan hautemandako neurri txikiko inbertsio beharrak estaltzeko, toki erakundeek horrelakoei aurre egin beharra izaten baitute.

Obren eta Zerbitzuen Foru Planaren programara jaitsi ahal izateko jarduera txikien arreta, Programaren tramitazio sistemaren ondorioz arreta mantsoa eta eskakizun handiekikoa den kasuetan, Programa hori neurri handiagoko jardueretarako egituratuta dagoelako.

Laguntzen programa honek arrakasta handia izan du abian jarri zenetik, horren adibide ditugu onartutako deialdi desberdinen babesean egindako jardueren eskari handi eta iraunkorra, baita programarako dagoen zuzkidura ekonomikoan duen etengabeko hazkunde ere; honek argi uzten du tresna hau zein baliozkoa eta eraginkorra den, aldi berean, mantendu beharra dagoela ere justifikatuta dago, arabar toki sektorea babesteko neurrien multzoan gero eta indartsuago bihurtzen ari baita, azken bost urtean ezarri eta kudeatu denetik dagozkion azterketak egin ondoren.

Laguntzen bi programa hauen eragina eta arabar gizartean duten onarpena baloratu ondoren, eta aurrez azaldutakoa gogoan izanda, egokia iruditu da arauzko marko finko bat ezartzea, bere biziraupena egonkortu dezan, funtzionamendua artikula dezan eta ahal den neurrian ezarpenaren eraginkortasuna eta urtero programa hauek finantzatzeko baliabideen eskuragarritasuna berma ditzan.

Hori dela eta, bere bigarren artikuluan adierazitako printzipio inspiratzaileak gidari hartuaz eta inbertsio txikiak finantzatzeko tokiko erakundeekin lankidetzan arituaz foru erakundeek arabar tokiko sektoreei ematen dien babesa indartzeko borondate osoz, Foru Arau hau eratu da.

**I. TITULUA**

XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua.- Helburua.**

Foru Arau honen helburua da "Auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako" eta "Obra txikiak gauzatzeko" laguntza programei dagozkien laguntzak arabar toki erakundeei ematerakoan hori guztia arautuko duten irizpideak, arauak eta aginduak ezartzea eta arautzea.

**2. artikulua.- Printzipio inspiratzaileak.**

Foru Arau honen printzipio inspiratzaileak dira lurralde oreka, toki erakundeekin lankidetza, tokiko autonomiaren errespetua eta

El programa de ayudas creado y regulado se marcaba entonces como objetivos principales el de la recuperación de formas tradicionales de hacer pueblo así como el de facilitar a los pobladores un medio a través del cual se dispusiese de una herramienta válida para la interacción de la población habitante en el espacio elegido para vivir, articulando medios para favorecer la convivencia.

Por otro lado, este instrumento ha permitido la financiación, a un coste muy competitivo tanto para la entidad local como para la Diputación Foral de Alava, de actuaciones de pequeña envergadura y escasa dificultad técnica, orientadas al mantenimiento del estado de conservación y uso de algunos de los bienes de las entidades locales o la mejora de espacios convivenciales mediante pequeñas inversiones.

El análisis realizado en términos de resultado de la implementación de este programa de ayudas desde el año 1997 puede considerarse muy positivo, tanto en términos de inversión, como del logro de la cohesión social, habiéndose incorporado al mismo la mayor parte de las entidades locales, especialmente los concejos y pequeños ayuntamientos, suponiendo en muchos casos el mantenimiento de esta fórmula tradicional y en otros la recuperación de la misma tras décadas de abandono.

El programa de "Ejecución de Obras Menores" tiene su aparición en el panorama foral de cooperación de la Diputación con las Entidades Locales en el año 2008, y surge como respuesta a una doble demanda:

- La cobertura de necesidades inversoras de limitada magnitud a la que deben hacer frente las entidades locales, detectadas en la gestión diaria de los pueblos.
- La oportunidad de descargar al programa de Plan Foral de Obras y Servicios, de la atención de pequeñas actuaciones para las que el propio sistema tramitatorio del Programa de ayudas resultaba lento y exigente, por cuanto el mismo está estructurado para actuaciones de mayor envergadura.

El éxito cosechado por este programa de ayudas desde la fecha de su implantación, algunos de cuyos indicadores más reseñables son la fuerte y sostenida demanda de actuaciones llevada a cabo al amparo de las diferentes convocatorias aprobadas, así como el consecuente incremento en la dotación presupuestaria que al mismo se destina, confirma contundentemente la validez de este instrumento así como la eficacia del mismo, al tiempo que justifica la necesidad de su mantenimiento mediante su consolidación dentro del conjunto de medidas de apoyo al sector local alavés, previas las revisiones oportunas llevadas a cabo desde la perspectiva de la experiencia de su implementación y gestión en el último lustro.

Para ambos programas de ayudas, una vez valorada la incidencia y aceptación de los mismos por la sociedad alavesa y en atención a lo anteriormente expuesto, se ha estimado procedente la dotación de un marco regulatorio sólido que estabilice su pervivencia, articule su puesta en funcionamiento y garantice, en la medida de lo posible, tanto la eficacia de su aplicación como la disponibilidad de recursos que anualmente han de destinarse a la financiación de los mismos.

Por todo ello, manteniendo como guías los principios inspiradores enunciados en su artículo segundo y desde la inequívoca voluntad de reforzar el apoyo de las instituciones forales al sector local alavés a través de la cooperación con sus entidades locales en la financiación de pequeñas inversiones se conforma esta Norma Foral.

**TITULO I**

DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1.- Objeto.**

La presente Norma Foral tiene por objeto establecer y regular los criterios, reglas y prescripciones por los que deberá regirse la concesión de ayudas a las Entidades locales alavesas correspondientes a los programas de ayudas "Iniciativas para el Fomento de las Relaciones Vecinales" y "Ejecución de Obras Menores".

**Artículo 2.- Principios inspiradores.**

Son principios inspiradores de la presente Norma Foral los de equilibrio territorial, cooperación con las entidades locales, respeto a la

Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen eskuduntza bereziei errespetua eta lehia bidezko erregimenaren mende dauden laguntzen bidez inbertsio txikiak finantzatzeko toki erakundeekin lankidetzan aritzea.

**3. artikulua.- Diru hornidura.**

Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan jasoko da Foru Arau honek aurreikusitako laguntza-lerroen finantzaketa, baina ezingo dute Arabako Lurralde Historikoari dagozkion baliabideen ehuneko 0,50 baino gutxiagokoak izan. Baliabide horiek, martxoaren 23ko 2/2007 Legeak, baliabideen banaketarako eta foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorriz edo aipatutako baliabide erabilgarriak kuantifikatzeko metodologia jasotzen duen eta une bakoitzean indarrean dagoen arauak xedatutakoarekin bat etorriz kalkulatuko dira, betiere Arau honek araututako laguntza-lerro bakoitzerako ondoko ehunekoak errespetatuz:

- Gutxienez ehuneko 0,25 II. Tituluak (auzo harremanak) araututako laguntzetarako.
- Gutxienez ehuneko 0,75 III. Tituluak (obra txikiak) araututako laguntzetarako.

Ehuneko horiek betetzen ez badira, dirua beste programa baterako erabiliko da.

Laguntza programa hauek finantzatzera bideratutako partidak Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuko toki erakundeen inbertsio programaren barruan esleituko dira urtero.

Urtero egiten den deialdian, bi laguntza programetako bakoitza finantzatzeko erabiliko den hasierako zenbatekoa ezarriko da (eurotan adierazita edo artikulu honen lehenengo paragrafoan adierazitako ehuneko 0,50 horren gaineko portzentajea adierazita).

Hasiera batean partida bakoitzean hornitutako zenbatekoa gehitu egin daiteke aurrekontu aldaketak onartzeagatik eta hornidura gehigarriak sortzen dituzten era guztietako gertaerengatik.

Halaber, partidak gutxitu ahal izango dira aurreko urtean programa horiek finantzatu zuten aurrekontu-partidetan —dirulaguntza baliogabetu dituztelako, borondatez uko egin dutelako edo bajak egon direlako— izandako beherapenaren kopuru berean.

II. eta III. Tituluetan araututako laguntza programaren batean sar daitezkeen eskari guztiak artatutakoan, aurrekontu partidak gaindikina balu, aurrekontu mugengatik artatu gabe geratutako beste programa batean egindako eskariak artatzeko erabili ahal izango da, saldoa agortu arte, eta ezarritako lehentasunezko ordena errespetatuaz.

## II. TITULUA

### AUZO HARREMANAK SUSTATZEKO EKIMENEN PROGRAMARENA

**4. artikulua.- Izaera.**

Programa honen kargu diren laguntzak jaso ahal izango dituzte 67. artikuluan adierazitako motako obrek, auzolan sistemaren bidez egin baldin baziren, hau da, udalerriko onuraduneko biztanleen eskulana eta tresnak, animaliak edo ibilgailuak beste ekarpenik ez baldin bazen egon.

**5. artikulua.- Erakunde onuradunak.**

Auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako Auzolan-Veredas programako laguntzez baliatu ahal izango dira arabar kontzejuak, baita 500 biztanle baino gutxiagoko gune bakarreko arabar udalak edo biztanle gehiagokoak ere bai auzoetan edo udalari zuzenean atxikitako biztanle guneetan jarduerak egiteko, Arabako Foru Nomenklatorean hala jasota baldin badaude berariaz eta 500 biztanle baino gehiago ez badituzte.

autonomía local y a las atribuciones peculiares de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava, así como el de colaboración con las entidades locales para la financiación de pequeñas inversiones mediante ayudas sometidas al régimen de concurrencia competitiva.

**Artículo 3.- Dotación financiera.**

La financiación de las líneas de ayudas previstas en esta Norma Foral vendrá recogida en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Álava, no pudiendo representar cuantía inferior al 0,50 por ciento de los recursos disponibles correspondientes al Territorio Histórico de Álava, calculados de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 2/2007, de 23 de marzo, de Metodología de Distribución de Recursos y de Determinación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales a la Financiación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aplicable al periodo 2007-2011, o en la normativa que contemple la metodología para la cuantificación de los citados recursos disponibles y que en cada momento se encuentre vigente, respetando los siguientes porcentajes para cada una de las líneas de ayudas reguladas en la presente Norma:

- Al menos el 0,25 por ciento para las ayudas reguladas en el Título II (relaciones vecinales).
- Al menos el 0,75 por ciento para las ayudas reguladas en el Título III (obras menores).

En caso de no cubrirse estos porcentajes, el dinero se destinará al otro programa.

Las partidas correspondientes destinadas a financiar estos programas de ayudas serán consignadas anualmente en el programa de Inversiones de Entidades Locales del Presupuesto de la Diputación Foral de Álava de cada ejercicio.

Cada convocatoria anual determinará la cuantía inicial (expresada en euros o en porcentaje sobre el 0,50 por ciento al que se hace referencia en el párrafo primero de este artículo) con la que se financiará cada uno de los dos programas de ayudas.

La cuantía inicialmente dotada en cada una de las partidas podrá incrementarse como consecuencia de modificaciones presupuestarias y cualesquiera otras incidencias que supongan dotaciones adicionales.

Del mismo modo, las partidas podrán verse incrementadas en la misma cantidad que las bajas producidas en la partida presupuestaria que financia estos programas en el año anterior, como consecuencia de las revocaciones de subvención, renuncias voluntarias o bajas producidas.

Si una vez atendidas todas las solicitudes amparables en uno de los programas de ayudas regulados en los Títulos II y III, su partida presupuestaria presentase excedente, el mismo podrá ser aplicado a la atención de actuaciones solicitadas al amparo de la convocatoria del otro programa que hubiesen quedado sin atender por limitación presupuestaria, hasta el agotamiento del saldo, y respetando el orden de priorización establecido.

## TITULO II

### DEL PROGRAMA DE INICIATIVAS PARA EL FOMENTO DE LAS RELACIONES VECINALES

**Artículo 4.- Naturaleza.**

Podrán ser objeto de ayudas con cargo a este programa la ejecución de obras de la tipología expresada en el artículo 6 siguiente, que fueren ejecutadas por el sistema de veredas o auzolan, es decir con la exclusiva aportación de mano de obra y herramientas, animales o vehículos de transporte de los habitantes de la localidad beneficiaria.

**Artículo 5.- Entidades beneficiarias.**

Podrán acogerse a las ayudas de Programa de Iniciativas para el Fomento de las Relaciones Vecinales Auzolan-Veredas los Concejos alaveses, así como los Ayuntamientos alaveses de menos de 500 habitantes de carácter mononuclear, o de tamaño poblacional superior para actuaciones en sus barrios o núcleos de población que sean de adscripción directamente municipal, estén recogidos expresamente como tales en el Nomenclátor Foral de Álava, y su población no supere los 500 habitantes.

**6. artikulua.- Obren tipologia.**

Programa honetako laguntzak jaso ahal izango dituzte honako obrek:

a) Urak hornitzeko edo saneamendu sareen zati baten konponketa ez espezializatuak, kaleen edo bide publikoen zoladura, sistema honen bidez egin ahal badira.

b) Kontzejuko aretoen, Gizarte zentroen, titulartasun publikoko kultuko tokien, bolatokien obra txikiak, teilatuak, konponketak eta konponketa ez espezializatuak egiteko, edo Obren eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen 19/2010 Foru Arauko 7. artikuluko 3. atalean jaso eta enuntziatutako tokiko ekipamenduen beste kontzeptu batzuetarako.

c) Lorategiak, fatxadak, espazio komunak eta abar konponduz, herria apaindu edo edertzeko jardunak.

d) Bideak, bidexkak, errekak, ur-bazterrak eta ureztatze-ubideak garbitzeko eta mantentzeko obrak.

Deialdi bakoitzean diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak sartu daitezke, aurrez adierazitako burutzapen kontzeptuak kendu gabe, urtero eta urtebeteko irismenarekin.

**7. artikulua.- Laguntzen zenbatekoa.**

1.- Programa honen gain emandako laguntzek kostu materialen ehuneko 100 har dezakete, BEZa barne. Makinak (gidaririk eta laguntzailerik gabe) alokatzeko dirulaguntza ere kontuan hartu daiteke, eta zenbateko hori gehienez ere aurrekontuan sartutako materialen ehuneko 10ekoa izango da. Jardueraren kostu osoa (materialen kostua + makinak alokatzeko kostua + diruz lagundu gabeko langile espezializatuen kostua) 30.000,00 euro izango da gehienez dagokion deialdia ebaztean indarrean dagoen Balio Erantsiaren Zerga barne.

2.- Zoladura lanetarako edo zoladura lanak ere egin behar diren jarduereetarako, lan hauei dagokien dirulaguntza kalkulatzeko ondoren adierazitako moduluaren emaitza kalkulatuko da, metro karratuko, eta metro karratu guztiak izango dira kontuan:

-Hormigoia eta bestelakoak: 30,50 euro/m$^2$.

Irizpide horiek urtero eguneratuko dira Obra eta Zerbitzuen Foru Planak erabilitako irizpide berberen arabera.

3.- Emandako dirulaguntza ez da inola ere handituko. Baina txikitzeko aztertu ahal izango da, egiaz burututako jardueraren arabera, obra amaitutakoan aurkeztutako fakturen arabera, arau honetan bertan ezarritako moduluen aplikazioaren arabera edo obren jarraipena eta kontrola egiteko foru teknikarien balorazioaren arabera.

**8.- artikulua.- Deialdia eta eskariak.**

1.- Urtero urtarrilean dagokion dirulaguntza deialdia onetsiko da. Deialdi hori ALHAOn (oraindik aurrera ALHAO) argitaratuko da gehien jota otsailaren 15ean eta ebatzi eta jakinaraziko da urte bakoitzaren ekainaren 1a baino lehen.

2.- Horretan, besteak beste, eskariak aurkezteko epea adieraziko da –ALHAOn deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabete naturalekoa egongo da lehenetsita–, baita eskaria aurkezteko modua eta tokiak eta prozedura tramitatzeko erabakigarria edo interesekoa izan daitekeen beste edozein gai ere.

Tokiko Erakundeen eskaria eskumendun organoak onartu beharko du behar bezala eta eskari hori inprimaki eredu jakin batean aurkeztu beharko da horrelakorik eman baldin bada; eskari horrekin batera egingo diren lanen aurrekontua edo balorazioa aurkeztuko da eta kostua aparte adieraziko da (BEZa barne).

Jarduera zoladura jartzeko baldin bada edo zoladura ere jarri behar bada jarduera horretan, aurkeztutako aurrekontua edo balorazioa behar bezain zehatza izan beharko da, zenbat metro koadroz ari garen jakiteko eta zer material erabiliko den ere jakiteko, 7. artikuluan adierazitako ezarri asmoz.

**Artículo 6.- Tipología de las obras.**

Podrán ser objeto de ayuda con cargo a este programa la ejecución de obras de la siguiente naturaleza:

a) De reparación parcial y no especializada de redes de abastecimiento o saneamiento de aguas, así como de pavimentación de calles o vías públicas, que sean susceptibles de ejecución por ese sistema.

b) Realización de obras de reparación no especializada, remodelación, retejado u obras menores de Salas de Concejo, Centros sociales, lugares de culto de titularidad pública, boleras, u otros conceptos de equipamiento local, recogidos y enunciados en el artículo 7 apartado 3 de la Norma Foral 19/2012, reguladora del Plan Foral de Obras y Servicios.

c) Actuaciones dirigidas a adornar o embellecer la localidad, mediante arreglo de jardines, fachadas, espacios comunes, etc.

d) Obras de limpieza y mantenimiento de caminos, sendas, arroyos, riberas y cauces de riego.

Cada convocatoria podrá incorporar conceptos subvencionables sin eliminar conceptos de ejecución de los anteriormente expresados, con carácter y alcance anual.

**Artículo 7.- Cuantificación de las ayudas.**

1.- Las ayudas concedidas con cargo a este programa podrán alcanzar hasta el 100 por ciento del coste de los materiales, IVA incluido. Podrá considerarse la atención de subvención de alquiler de maquinaria (sin conductor ni personal de apoyo) por una cuantía equivalente a, como máximo, un 10 por ciento del coste de los materiales presupuestados. El coste total de ejecución de la actuación (Coste de materiales, + coste de alquiler de maquinaria + coste de personal especializado no subvencionado) no superará la cuantía máxima de 30.000,00 euros incluido el Impuesto sobre el Valor Añadido vigente al momento de resolución de la correspondiente convocatoria.

2.- Para las actuaciones que consistan o incorporen obras de pavimentación, la subvención correspondiente a ésta se calculará como el producto del módulo que a continuación se expresa, considerado el mismo por metro cuadrado, por el total de metros cuadrados:

-Hormigón u otros: 30,50 euros/m$^2$.

Estos módulos serán actualizados anualmente en base a los mismos criterios utilizados en en el Plan Foral de Obras y Servicios.

3.- La subvención concedida no será objeto de incremento en ningún caso. Sin embargo podrá revisarse a la baja en función de la actuación realmente ejecutada, a tenor de las facturas presentadas una vez finalizada la obra, de la aplicación de los módulos establecidos en esta misma norma o de la valoración efectuada por los técnicos forales responsables del seguimiento y control de las obras.

**Artículo 8.- Convocatoria y solicitudes.**

1.- Con carácter anual, el mes de enero, se procederá a la aprobación de la convocatoria de ayudas correspondiente. La misma será publicada, como plazo máximo, el 15 de febrero en el BOTHA (en lo sucesivo BOTHA) y será resuelta y comunicada antes del 1 de junio de cada año.

2.- En la misma figurará, entre otros contenidos, el plazo para la presentación de solicitudes -que por defecto será de un mes natural a contar desde el día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el BOTHA, la forma y lugares para hacerlo y cualquier otro extremo que pueda resultar de precisión o interés para la tramitación del procedimiento.

Junto con la solicitud de las Entidades locales, que deberá ser debidamente aprobada por el órgano competente y deberá presentarse según el modelo de impreso cuando tal les sea facilitado, se deberá acompañar un presupuesto o valoración de las obras a realizar, señalando separadamente el coste (IVA incluido).

Cuando la actuación tenga por objeto o incluya obras de pavimentación, el presupuesto o valoración presentados deberán ser lo suficientemente detallados como para que de ellos pueda obtenerse información de los metros cuadrados a que afectará así como del material empleado, al efecto de aplicación de lo establecido en el artículo 7.

3.- "Auzo harremanak sustatzeko ekimenak" laguntza programan sartu nahi duen toki erakunde bakoitzak, deialdi bakoitzean obra bat besterik ezingo du eskatu.

4.- Laguntza bat baino gehiago eskatuz gero, toki erakundearen eskaera guztiak baztertu ahalko dira.

5.-"Auzo harremanak sustatzeko ekimenak" programaren urteko deialdi bakoitzean sartzea eskatutako obrek ezingo dute Toki Administrazioaren Sailak kudeatutako beste laguntzarik eskatu, ekitaldi bereko deialdietan. Eskatuz gero, aipaturiko obrak bere arretatik kanpo geratuko dira eta dirulaguntza jaso ondoren eginez gero eskaria, dirulaguntza hori kendu egingo zaio.

6.- Edozein kasutan, dirulaguntza jasotzen duten jardunak ondasun publikoetan egingo dira, haien titulartasun publikoa erakunde eskatzaileari dagokionean.

**9. artikulua.- Emakida araubidea eta hautatzeko irizpideak.**

Eskaerak jaso ondoren, lehiarako printzipioaren arabera, aintzat izan beharreko eskaera guztien artetik, aurrekontu esleipenen arabera onar daitezkeenak hartuko dira kontuan, eta obra horiek honela sailkatuko dira beren premia edo presaren arabera: garrantzitsuak, komenigarriak eta atzeratu daitezkeenak. Balorazio hori prozedurako instrukzioaren arlo tekniko arduradunak egingo du.

1.- Obra garrantzitsuek 60 puntu izango dute gehienez, eta obra komenigarriek, berriz, 40 puntu gehienez.

2.- 10 puntu gehiago emango zaizkie laguntzen aurreko deialdian programa honen konturako dirulaguntzarik jaso ez duten toki erakundeek egindako eskariei.

3.- Eskari bakoitzari puntuak emango zaizkio, auzotarren ehuneko parte hartzearen arabera. Adierazle hau [Auzolanean parte hartu duen pertsona kopurua/Zuzenbidezko herritarrak] ratioaren emaitza izango da. Zenbakitzailea toki erakundeak eskaera orrian zehaztutako datuetatik aterako da, eta izendatzailea laguntzen deialdiaren onespena argitaratutako ekitaldian TEFFF banatzeko ezarri diren datuetatik hartuko da. Ratioa ez da inoiz 1 baino gehiago izango. Toki erakundeak ez badu auzoen partaidetzari buruzko daturik ematen, ratioa 0-tzat hartuko da.

Irizpide hau erabilita lortutako puntuazioa eta ratioa bider hamar (Ratioa x 10) eginda lortutako emaitza berdinak izango dira. Gehienez 10 puntu lortu ahal izango dira eta gutxienez 0.

4.- Aipaturiko hiru irizpide horiek erabilita lortutako puntuen batura izango da kontuan laguntza jaso dezaketen obren eskariei lehentasuna emateko. Eskari batek baino gehiagok puntu kopuru berdina lortuz gero, deialdiaren aurreko bi ekitaldietan programa honen kargura dirulaguntzarik jaso ez duten toki erakundeen eskariek lehentasuna izango dute, zuzenbidezko biztanleria txikienetik handienera ordenatuta. Hori ezarrita ere berdinketak jarraituko balu, azken bost urteetan programa honen kargura dirulaguntza txikiena jasotako erakundearen eskariari emango zaio lehentasuna.

Nahiz Udalek beraien auzoetarako nahiz Kontzejuek bertako guneren bateko jardueretarako eskatutako jardunetan jarduera hori garatuko den gunean bizi dena izango da zuzenbidezko biztanleria onuraduna.

Ondoko jardunei dagozkien eskaerak baztertu ahal izango dira:

1.- Baztertu ahal diren kasuetan daude Arabako Foru Aldundiko Obren eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen 19/2012 Foru Arauko 8. artikuluko a), b), c), d), i) eta j) ataletan berariaz aipaturikoak.

2.- Deialdia ebatzi aurretik hasitakoak edo burututakoak, aldez aurretik Arabako Foru Aldundiaren Toki Administrazioaren Sailak horretarako baimena eman duenean izan ezik.

3.- Con cargo al programa de ayudas "Iniciativas para el fomento de las Relaciones Vecinales" cada entidad local que desee acogerse a este tipo de ayudas, solamente podrá solicitar una obra por convocatoria.

4.- En caso de solicitarse más de una ayuda, se considerarán rechazables todas las solicitadas por la entidad local.

5.- Las obras solicitadas para su atención por este Programa de "Iniciativas para el fomento de las Relaciones Vecinales" en cada convocatoria anual no podrán ser solicitadas en otros programas de ayudas gestionados por el Departamento de Administración Local en sus convocatorias correspondientes al mismo ejercicio. En caso de producirse esta circunstancia, se considerarán excluidas de su atención las citadas obras, y en el caso de que la solicitud se realizara una vez obtenida subvención, la misma será objeto de revocación.

6.- En todo caso, las actuaciones subvencionadas se llevarán a cabo sobre bienes cuya titularidad pública corresponda a la entidad peticionaria.

**Artículo 9.- Régimen de concesión y criterios de selección.**

Una vez recibidas las solicitudes, de conformidad con el principio de concurrencia competitiva, de entre todas las solicitudes de obras susceptibles de atención, se atenderán en función de la consignación presupuestaria, clasificándose las obras en importantes, convenientes y aplazables, con arreglo al estado de necesidad o urgencia de las mismas, valorado por el área técnica responsable de la instrucción del procedimiento.

1.- Se valorarán con un máximo de 60 puntos las importantes, y con un máximo de 40 las consideradas convenientes.

2.- Se primarán con 10 puntos adicionales las solicitudes realizadas por aquellas entidades locales que no hayan sido beneficiarias de subvención con cargo a este programa de ayudas en la convocatoria anterior.

3.- Se asignará puntos a cada solicitud en función del porcentaje de participación vecinal. Este indicador vendrá expresado como el resultado de la ratio [Nº personas participantes en la vereda/Población de derecho de la localidad], cuyo numerador se tomará de los datos aportados por la entidad local en el impreso-solicitud, y el denominador se tomará de los datos aplicados para la distribución del FOFEL del ejercicio en que fuere publicada la aprobación de la convocatoria de ayudas. En ningún caso la ratio podrá ser superior a 1. Si por parte de la entidad local no se aportase datos de participación vecinal, la ratio se considerará igual a 0.

La puntuación obtenida por aplicación de este criterio será igual al resultado de la ratio multiplicado por diez (Ratio x 10). El máximo de puntuación obtenible será de 10 puntos y el mínimo será 0.

4.- La suma de los puntos obtenidos por aplicación de cada uno de los tres criterios anteriormente expresados será la tenida en cuenta para la priorización en la atención de obras solicitadas que resulten amparables. En el caso de empate en puntuación de varias solicitudes, se preferirán las solicitudes de entidades locales que no hubiesen obtenido subvención con cargo a este programa de ayudas en los dos ejercicios inmediatamente anteriores al de la convocatoria, ordenadas las mismas de menor a mayor población de derecho. Si tras su aplicación persistiese empate, se preferirá la solicitud de la entidad cuya percepción de subvención con cargo a este programa de ayudas hubiere sido menor en los últimos cinco años.

Tanto en actuaciones solicitadas por Ayuntamientos para sus barrios, como por Concejos para actuaciones que afecten a alguno de sus núcleos, se considerará como población de derecho y beneficiada exclusivamente la del núcleo en el que se desarrolle la actuación.

Se considerarán rechazables aquellas solicitudes correspondientes a actuaciones que:

1.- Se encuentren incluidas en los casos de exclusión expresamente citadas en los apartados a), b), c), d), i) y j) del artículo 8 de la Norma Foral 19/2012, reguladora del Plan Foral de Obras y Servicios de la Diputación Foral de Alava.

2.- Hayan sido iniciadas o ejecutadas con anterioridad a la resolución de la correspondiente convocatoria, salvo en el supuesto de existir autorización previa del Departamento de Administración Local de la Diputación Foral de Alava.

3.- Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legearen arabera kalifikatu edo inbentariatutzat jotzen diren ondasunetan gauzatzeko asmoa badago eta eskaerarekin batera ez bada Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren aldeko txostenik aurkeztu. Baita hirigintza araudiaren arabera udal babesa duten ondasunetan gauzatzeko asmoa badago ere, eta eskaerarekin batera ez bada hirigintza arloko udal aholkulariaren aldeko txostenik aurkeztu.

4.- Obra bat baino gehiago egitea badakar, nahiz eta eskaera orri berean eta aurrekontu bakar baten pean aurkeztuak izan.

5.- Toki erakundearen jabegoko eraikin edo espazioetan egin nahi bada obra, eta eraikin edo espazio horiek 6. artikuluan zehaztutako gizarte izaerako erabilera definiturik ez badute.

6.- Bere konplexutasun teknikoa edo bestelako egoeraren bat dela eta, Obra eta Zerbitzuen Foru Planerako Zerbitzuaren iritziz ezin bada auzolan sistemaren bidez gauzatu edo komenigarria ez bada.

7.- Aurreko deialdietan programa honen dirulaguntza jaso badute eskariek eta toki erakundeek jarduera burutzeari uko egin bazioten ondoren edo laguntza programa honen kargu egin ez baziren nahiz eta ez egiteko arrazoi justifikaturik ez eduki.

8.- Atzera bota ahal izango dira “Auzo harremanak sustatzeko ekimenak” programaren azken deialdian onuradunak izan arren obra egiteari uko egin dioten erakundeen eskariak edo obra egin ez dutenenak edo zerbitzu teknikoen iritziz diruz lagundutako jarduera ez dagokion terminoetan egin dutenenak.

9.- Titulu honetan berariaz jasotzen den baztertua izateko arrazoiren bat betetzen badu.

**10. artikulua.- Prozedura, ebazpena eta jakinarazpena.**

1.- Eskaerak eta haiekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa jaso ondoren, Obra eta Zerbitzuen Foru Planerako Zerbitzuak, instrukziorako eskumena daukan organoa izanik, eskaerak aztertu behar ditu eta dirulaguntza jaso dezaketen obren eta zerbitzuen instrukzioari buruzko txostena egin behar du Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorriz. Instrukzio txostena organo kolegiatu bati igorriko zaio eta organo horretan Obren eta Zerbitzuen Foru Planeko eskumenen arloko zuzendaria eta diputatua egongo dira. Organo kolegiatu honen osaera hazi edo aldatu egin daiteke, laguntza programa honen deialdietan xedatutakoaren arabera.

2.- Organo kolegiatuak ebazpen proposamena egingo du eta beregain hartuko du instrukzio organoaren txosten osoa edo egoki iritzitako aldaketak sartuko ditu bertan. Horren guztiaren berri Arabako Toki Administrazioko eta Finantzetako Lurralde Kontseiluari emango dio.

3.- Aurreko baldintzak bete eta dagozkion egokitzapenak edota zuzenketak egin ondoren, organo kolegiatuak dagozkion laguntzak emateko proposamena igorriko dio Diputatuen Kontseiluari eta honen onespen ebazpena ALHAOn argitaratuko da.

4.- Dirulaguntza eskaerak dagokion aurrekontu ekitaldiaren barruan ebatziko dira. Epealdi horretan esanbidezko ebazpenik eman eta jakinarazi ezean, ezezkoa eman dela ulertu behar da.

5.- Toki erakundeei idatziz jakinaraziko zaie obra horiek programan sartu ala kanpoan utzi adierazten duen ebazpena. Horrekin batera, zein epetan egin eta zein baldintza bete beharko duten adieraziko zaie.

6.- Ebazpen horrek administrazio bideari amaiera ematen dio.

7.- Laguntzak emateko ebazpenean berariaz adierazten denean, eta adierazitako epearen barruan, onuradun toki erakundeak eskatutako agiri guztiak aurkeztu beharko ditu Foru Aldundian.

3.- Se pretendan ejecutar sobre bienes que tengan la consideración de calificados o inventariados en virtud de la Ley 7/1990 de Patrimonio Cultural Vasco y cuya solicitud no viniese acompañada de informe favorable del Servicio de Patrimonio Histórico-Arquitectónico de la Diputación Foral de Álava, o sobre bienes que, estando sometidos a protección municipal en virtud de la normativa urbanística, la solicitud no viniese acompañada de informe favorable del asesor municipal en materia urbanística.

4.- De hecho supongan la ejecución de más de una obra, aunque se hubieren presentado en un mismo impreso de solicitud y bajo un único presupuesto conjunto para todas ellas.

5.- Se pretenda llevar a cabo en edificaciones o espacios propiedad de la Entidad local, que no tengan un uso definido de carácter social, de los determinados en el artículo 6.

6.- A juicio del Servicio de Plan Foral de Obras y Servicios no fuese conveniente o susceptible de ser realizada mediante el sistema de veredas, bien por su complejidad técnica, o por cualesquiera otras circunstancias.

7.- Aquellas solicitudes que, habiendo sido objeto de subvención al amparo de este programa en convocatorias anteriores, las entidades locales beneficiarias hubiesen renunciado posteriormente a su ejecución o, de hecho no hubieren sido ejecutadas con cargo a este programa de ayudas, sin causa justificada que hubiera impedido su ejecución.

8.- Serán consideradas rechazables las solicitudes de aquellas entidades que, habiendo resultado beneficiarias de ayudas en la última convocatoria de “Iniciativas para el fomento de las Relaciones Vecinales” resuelta con anterioridad, hubieren renunciado a la ejecución de la obra o, de hecho, no la hubieren ejecutado, o se hubiese ejecutado en términos que los servicios técnicos considerasen no correspondientes a la actuación inicialmente subvencionada.

9.- Incurriesen en motivos de rechazo explícitamente recogidos en este Título.

**Artículo 10.- Procedimiento, resolución y notificación.**

1.- Recibidas las solicitudes junto con la documentación que las acompañe, corresponderá al Servicio de Plan Foral de Obras y Servicios, como órgano de instrucción, la realización de su estudio y la elaboración del pertinente informe de instrucción de las obras y servicios subvencionables, con arreglo a lo dispuesto en esta Norma Foral. El informe de instrucción será elevado a un órgano colegiado que estará compuesto, por el Director/a y Diputado/a del área de competencia del Plan Foral de Obras y Servicios. La composición de este Órgano colegiado podrá verse incrementada o modificada por lo dispuesto al efecto en las correspondientes convocatorias de este programa de ayudas.

2.- El órgano colegiado elaborará la propuesta de resolución, asumiendo en su totalidad el informe del órgano de instrucción o introduciendo en él las modificaciones que estime pertinentes, informando de la misma al Consejo Territorial de Administración Local y Finanzas de Álava.

3.- Cumplidos los requisitos anteriores y realizadas las adaptaciones y/o correcciones oportunas, el órgano colegiado someterá al Consejo de Diputados la propuesta de concesión de ayudas correspondientes, cuya resolución aprobatoria será publicada en el BOTHA.

4.- Las solicitudes presentadas para la concesión de las subvenciones se resolverán dentro del ejercicio presupuestario correspondiente, y han de entenderse denegadas por el transcurso del mismo sin que haya recaído y notificado resolución expresa.

5.- La resolución adoptada sobre la inclusión o no de las obras será notificada a las entidades locales mediante comunicación escrita, con expresión, en su caso, de su plazo de ejecución y de las condiciones que deberán ser cumplidas.

6.- Dicha resolución pone fin a la vía administrativa.

7.- Cuando así se especifique en la notificación de la correspondiente resolución de concesión de ayudas, y dentro del plazo señalado, la Entidad local beneficiaria deberá presentar ante la Diputación Foral la documentación que se le solicite.

**11. artikulua.- Dirulaguntza finkatu, ordaindu.**

1.- Materialen eta, dagokionean materialean alokairuaren, jatorrizko fakturak edo horien fotokopia konpultsatuak aurkeztu ondoren ordainduko dira dirulaguntzak. Faktura horiek erakunde onuradunaren izenean egongo dira, eta erakunde horrek ontzat emanda egongo dira. Halaber, Foru Aldundiak proposatutako teknikari eskudunek onartutakoak izan behar dute. Horiek, proposamena egingo dute dirulaguntzaren zenbatekoari dagokionez, behar bezala justifikatu ondoren. Gehien jota bi hilabeteko apean ordainduko da, aurkezten denetik. Halaber, Auzolanen Liburua behar bezala beteta exijituko da.

2.- Deialdi bakoitzak ezarriko du obrak amaitzeko eta horien burutzapena eta gastua ziurtatzen duten agiriak aurkezteko epemuga. Dena dela, epemuga hori ezingo da izan deialdiaren urteko abenduaren 31 baino luzeagoa; dirulaguntza jasotzen denetik gehienez bi hilabeteko epean aurkeztu beharko ditu erakundeak frogagiri guztiak.

3.- Aurreko paragrafoetan adierazitako epean eskatutako frogagiriak igortzen ez badira, abiarazi egingo da dirulaguntza itzultzeko prozedura, 3/1997 Foru Arauak 13. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera.

4.- Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, dirulaguntza emateko ebazpena ere aldatu ahal izango da.

5.- Emandako dirulaguntzen zenbatekoa, bakarka zein Foru Aldundiak edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako dirulaguntza edo laguntzekin batera, ezin daiteke inoiz ere obraren kostua baino handiagoa izan.

**12. artikulua.- Erakunde onuradunen betebeharrak eta erantzukizunak.**

1.- Deialdi bakoitzean eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik toki erakundeek auzolana arautzeko ordenantza onartuta eta indarrean izan beharko dute.

Ordenantza indarrean duela justifikatzeko, dagokion toki erakundeak behin betiko onartu eta ALHAOn argitaratutako ordenantzaren testu osoaren fotokopia bidaliko du edo, bestela, eskaera orrian adierazi beharko du aipatutako testu osoa ALHAOn noiz argitaratu zen.

2.- Toki erakunde onuradunak aseguru bat izan behar du kontratatuta, auzolanari ekin aurretik, auzolanetan parte hartzen dutenen istripu arriskuak eta istripuaren ondorioz gerta daitezkeenak estaltzeko.

3.- Auzoen arteko harremanak sustatzeko programaren kontura ematen diren laguntzen toki erakunde onuradunek obra osorik finantzatzeko erantzukizuna izango dute, bai eta aipatutako laguntza emateko baldintza guztiak betetzeko ere.

4.- Laguntzak emateko ezarritako baldintzak ez betetzeak, laguntza baliogabetzea, jasotako kopuruak itzuli beharra, eta, hala badagokio, dirulaguntzak arautzen dituen foru arautegian aurreikusitako erantzukizunei aurre egitea ekarriko ditu berekin.

5.- Egoki iritziz gero, Aldundiko zerbitzu teknikoek egiaztapenak egin ditzakete auzotarrek obretan duten parte hartzea eskariaren inprimakian eta Ordenantza arautzaileetan jasotakoa bezalako dela ikusteko. Organo izapidegileak egokitzat jotako neurrien bidez aurreko hori betetzen ez dela egiaztatzen bada, ondorioak aurreko atalean zehaztutakoak izango dira.

6.- Erakunde onuraduna behartuta dago Toki Administrazioaren Sailak, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo beste organo eskudun batzuek eskatzen dioten informazio guztia ematera.

**Artículo 11.- Fijación, abono de la subvención.**

1.- El abono de la subvención se efectuará previa presentación de las facturas originales o fotocopias debidamente compulsadas, de los materiales y, en su caso, alquiler de maquinaria, emitidas a nombre de la entidad beneficiaria, aprobadas por la misma y aceptadas por el personal técnico competente designado por la Diputación Foral que propondrá, en su caso, y previa justificación, la cuantía de la subvención a abonar, que se abonará en el plazo máximo de dos meses desde su presentación. Asimismo, se exigirá el Libro de Veredas debidamente cumplimentado.

2.- Cada convocatoria establecerá la fecha límite para la finalización de las obras y presentación de los documentos acreditativos de la ejecución y gasto. En cualquier caso, el citado límite no podrá ser posterior al 31 de diciembre del ejercicio al que corresponde la convocatoria, debiendo remitir la entidad, la documentación acreditativa del pago en el plazo máximo de dos meses desde el abono de la subvención.

3.- En el caso de que no se remitan los justificantes requeridos en el plazo señalado en los párrafos anteriores, se iniciará el procedimiento de reintegro de la subvención en los términos establecidos en el artículo 13 de la Norma Foral 3/97 así como en la Ley 38/2003 General de Subvenciones.

4.- Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión.

5.- El importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con subvenciones o ayudas de la Diputación Foral o de otras entidades públicas o privadas supere el coste de la obra.

**Artículo 12.- Obligaciones y responsabilidad de las entidades beneficiarias.**

1.- Las entidades locales deberán disponer, con carácter previo a la finalización del plazo para la presentación de solicitudes de cada convocatoria, ordenanza reguladora de veredas debidamente aprobada y en vigor.

La disponibilidad de Ordenanza reguladora vigente será justificada por la entidad local solicitante mediante remisión de fotocopia de la publicación del texto integro de la misma en el BOTHA como consecuencia de la aprobación definitiva, o indicación en el Impreso-Solicitud, de la fecha de publicación del citado texto íntegro en el BOTHA.

2.- La entidad local beneficiaria deberá tener contratado, con carácter previo al inicio de la ejecución de la vereda, un seguro que cubra los riesgos de accidente y las contingencias que de él se deriven, para quienes participen en la vereda.

3.- Las entidades locales beneficiarias de las ayudas que se concedan con cargo al programa de Iniciativas para la promoción de relaciones vecinales serán responsables de la financiación total de la obra, así como del cumplimiento de todas las condiciones previstas para su otorgamiento.

4.- El incumplimiento de las condiciones fijadas para el otorgamiento de la subvención dará lugar a la revocación de la concesión, al reintegro de las cantidades percibidas y, en su caso, a las responsabilidades previstas en la normativa foral reguladora de las subvenciones.

5.- Por parte de los servicios técnicos de la Diputación, y si se estimase procedente, se podrá llevar a cabo comprobaciones tendentes a la constatación de la efectiva participación vecinal en las obras en los términos recogidos en el impreso de solicitud y en las Ordenanzas reguladoras. La verificación de su incumplimiento, mediante las medidas que se tenga por conveniente adoptar al respecto por el órgano instructor, provocará las mismas consecuencias indicadas en el apartado anterior.

6.- La entidad beneficiaria de la subvención está obligada a facilitar cuanta información le sea requerida por los Departamentos de Administración Local, Hacienda, Finanzas y Presupuestos, el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas u otros Órganos competentes.

**13. artikulua.- Dirulaguntza bat baino gehiago aldi berean.**

Laguntza programa honek diruz lagundutako obrak edo zerbitzuak sustatu dituen toki erakundeak Foru Aldundiko beste laguntza programa batzuetatik edo erakunde edo organismo publiko edo pribaturen batetik ere dirulaguntzak edo laguntzak jasoko balitu obra edo zerbitzu horiek burutzeko, laguntza horiek bateragarriak izango dira obraren edo zerbitzuaren kostuaren ehuneko 100 gainditzen ez badute. Gaindituz gero, "Auzo harremanak sustatzeko ekimenak" programako ekarpena txikitu egingo da ehuneko 100 hori lortu arte.

